

UDABERRITXO

Udaberria hasia da, goiz goizetik zelaiko txori guztiak kantari, txio-txioka hasten diren garaia. Eguzkia neguak utzitako elurra urtzen doa. Mendi gailurreko lore politena eta distiratsuenari, aspaldian ikusi ezinik egon den ama itzuli zaio; bere eguzki maitea, bera hotzetik babestera etorri da, neguko hotza epeltzera eta bere bizi laburra elurpean estalia galdu ez dadin.

Eguzkiak bere izpi goxoek lorea besarkatu dute eta lore ederrak zain egon den salbazioa lortu du. Eguzkiaren laguntza edukita, gorantz eta gorantz egin du zerua ez balego bezala. Lore politak bere petalo guztiak kolore deigarriaz margotzeaz arduratu da, orain gailurreko lore ederrena eta maitatuena da.

Zuhaitzeko hosto zaharrenak lurpean desagertzen hari dira.

Katagorrientzako ezkurra ugari azaldu dira, katagorriak zuhaitzetik atera dira, ezkurak biltzen hasi dira neguan janaria edukitzeko.

ZEHARKATZEAN

Giltzek ateak irrikitzen dizkidate baina itxi ere bai. Gauean isilpean ibiltzen da eta egunez bere ateak irekita egoten dira. Etxetik ateratzerakoan atea ireki ohi dut. Ikastolara sartzean berarekin topatzen naiz. Patiora joaterakoan ate handi bat zeharkatzen dut.

Hura zeharkatzean nire haurtzaroak atea irekitzen du eta etorkizunari barrura sartzen uzten dio. Nire bizitzan zehar milioika ate zeharkatu ditut, haiek gabe ez nintzateke hemen egongo, ate bakoitzaren ondoren mundu berri bat dago. Mundu horretara zeharkatzerakoan, mundu berri bat aurkitzen dut. Ate bakoitzak aire ezberdina du, guztiak ezberdinak dira, estruktura ezberdina, mundu ezberdina, temperatura ezberdina, leku ezberdina, kolore ezberdina...

Sentsazio ezberdinak sentitzen ditut ate ezberdinak zeharkatzerakoan:

Ertzainen kotxearen atea zeharkatzean, beldurra eta desegokitasuna. Ospitaleko atea zeharkatzean, beldurra. Ikastolako ate nagusitik ateratzean poza, eta sartzean berriz deserotasuna.

Azkenean, ate ezberdinak zeharkatzeak sentsazio erabat ezberdinak sortzen ditu.